

Asteasuarra da lider zaldi lasterketetan; Mujika da bigarren, Lasa hirugarren ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-10-19 ▶ III. urtea ▶ 714. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

# Janari eta artisau postu ugari Zizurkilgo VIII. Azoka Berezian

**BERTAKOAK** ▶ Herriko eta eskualdeko salmenta postu asko izango dira igandean

**SARIA** ▶ Udalak Baserriko Argia saria emango dio Zizurkilgo postu onenari

**EBEL** ▶ Elkarreak emakume baserritarraren lana aldarrikatuko du bertan ▶ 4

HITZA



## Aizkolariak «gustura» apustuko lanarekin

**BERROBI** ▶ Iban Ugartemendiak Mikel Belauntzarani irabazi zion lagun arteko lehia ▶ 6

TOLOSA ▶

## Hegoaldeak eta Laskorainek, garaipena

Seigarren berdinketa Tolosarentzat ▶ 2,3

ALEGIA ▶

## Kultur Astea antolatu du Kultur Batzordeak, aurten lehendabiziko aldiz, hilaren 22tik 28ra bitartean

Gazteentzako talogintza tailerrak zabalduko du egitaraua larunbatean; Topaguneak eskainiko du, goizean ▶ 5

LEITZALDEA ▶

## Euskara teknikari berria eskualdean

Maidar Goñi ariko da urte eta erdiz ▶ 7



ARETO FUTBOLA ▶

# Bigarren garaipena erdietsi dute etxean Hegoaldeko neskek

Soto del Real taldea izan zuten aurrez aurre Usabal kiroledegian eta 4 eta 1eko emaitzaz amaitu zuten partida

ERREDAKZIOA

Joan zen larunbatean Hegoaldeko sailkapeneko azkena den Soto del Real gainditu zuen Tolosako Usabal kiroledegian; etxean porrota ezagutu gabe jarraitzen du horrela Tolosako nesken areto futbol taldeak.

Soto del Real, nahiz sailkapeneko azkena izan, talde gogorra da eta neurketa zaila espero zuten Hegoaldekoek, eta halaxe izan zen; orain artean Ligako oilarren aurka jokatu behar izan dute, eta hartatik azkenak izateko, baina gora egingo dute, seguru. Bai, behintzat, lehenengo zatian jokatu zuten bezala jokatzeko segituz gero.

Partidua hasi orduko Soto del Realek jarrera erasokorra agertu zuen. Hegoaldekoek, berriaz, defentsan ez zuten lan ona

HEGOALDE K.E. ▶ 4

SOTO DEL REAL ▶ 1

**Hegoalde K.E.** Hasierako bostekoa: Idoia Manrique (at), Miriam Arana, Sarah Ugarte, Vicky Delgado eta Emi Ugarte. Aldaketak: Isa Barrio, Maider Lopez, Ane Larrañaga, Arnaia Azpilikueta, Ana Berciano eta Naiara Mayo.

**Soto del Real.** Hasierako bostekoa: Cou, Inma, Sonso, Vero eta Maria. Aldaketak: Marta, Fabiane, Ana eta Esther.

**Golak.** 0-1: Esther (8 m.); 1-1: Sarah Ugarte (26 m.); 2-1: Ana Berciano (28 m.); 3-1: Isa Barrio (35 m.); 4-1: Isa Barrio (38 m.).

egin, eta gaizki pasatu zuen hasiera horretan. Bisitarien aurrea ere hartu zuten zortzigarren minuturako, eta gol gehiago egiteko aukerak ere izan zituzten, baina gauzatu ez. Atsedenealdian Hegoalde atzetik, baina, zorionez, gol bakarreko diferentziarekin. Hartara, aldageletan Larreak eta Salvadorrek gauzak bere lekuan jarri zituzten: defentsa lanean sendoago eta batuago aritzeko agindu zieten jokalariei.

Eta neskek hala egin zuten. Neurketa bere egiteko gogoz atera ziren, eta atzeko lerroa sendotzeaz batera, aurrera begira zorrotzago jardun zuten. Sarah Ugartek eta Ana Bercianok denboraldiko beren lehen golak egin zituzten, eta haiekin taldea aurretik jarri. Elkarren segidan etorri ziren golak, eta horrek etxeokak hauspotu zi-

## Zelaiak taldea utzi du



Gema Zelaia azken partidua jokatu zuen iragan larunbatean. HITZA

Larunbatean Gema Zelaia jokalariek ekarri zuen bestelako albiste bat, taldea utzi egingo duela, hain zuzen ere. Berak hartutako erabakia da, eta hala jakinarazi zien Mikel Larrea eta Ruben Salvador entrenatzaileei, neurketa amaitu eta gero.

Aurten plantila zabala da —orain, bera gabe, 14 jokalaririk—, eta jokatzeko aukera guzti ikusten ditu; beraz, nahia gozian du utzi eta beste gauza batzuetan aritzeko denbora hartu. Tolosarrak 22 urte ditu, eta bigarren denboraldia zuten hau lehen taldean. ◀

tuen. Soto del Realek, ordea, ez zuten etsi, eta atezaina bera ere jokalaririk gisan arituz erabat aurrera egin zuen. Hartan agertu zen Isa Barrio beti bezain zorrotz. Kontraerasoko bi jokalditan 4-1ekoa jarri zuen, eta neurketa erabakita utzi zuen.

Etxeko bigarren partiduan

ere irabazi egin dute Larrea eta Salvadorren neskek. Hori da bidea, etxeko puntuak sendotu eta horrekin taldeak bere hobekuntzan jarraitzeko lasaitasuna lortu. Datorren larunbatean, hilak 22, Majadahondaren aurka jokatu du Hegoaldeko, Madril.

FUTBOLA ▶

## Sei berdinketekin, garaipena lortu ezinik jarraitzen du Tolosak

Hutsna amaitu zuen Indautxuren aurkako partida etxean, larunbatean

ERREDAKZIOA

Nahi eta ezin. Hitz hauekin laburbildu daitezke Tolosa futbol taldearen denboraldiaren nondik norakoak. Zortzi izan dira guztira jokaturako norgehiagokak, eta hauetatik sei berdindu dituzte urdinek. Banan-bana batzen dituzte, beraz, puntuak. Hala eta guztiz ere, beste biak irabazita, Hirugarren Mailako sailkapenaren erdialdean kokatzen dira, 12 punturekin, postu «eroso» ba-

tean —zazpigarren dira—, bigarren sailkatutik bi puntu baino bereizten ez dituztela. Badute pozik izateko aitzakiarik ere, izan ere, porrota ez dute ezagutzen orain artean Luluguaren mutilek. Haatik, azken bultzada falta zaie garaipenak heltzeko.

Joan den larunbatean Indautxu taldeak bisitatu zuen Berazubiko zelaia. Ikusle kopurua nabarmen egin zuen behar-runtz; baina, hala eta guztiz ere, itxura ona eman zuten Tolosakoek, arerio gogorra zela ain-

tzat hartuz. Hasiera ez zen baxterea izan, taldea irabaztera irten bazen ere. Indautxuk, 4-1-4-1 eskema erabili zuena, asko sufritu behar izan zuen puntua etxera eramateko, Tolosakoak gogor aritu baitziren erasoan. Lehen zatian bost kórner jaurti zituzten jarraian etxeokak, non azkenekoan Oruek langara bota zuen jaurtiketa. Baina baliokak ez zuten atearen bidea topatu neurketako «aukerarik argienean». Regillaga hegalean aritu zen, eraso une garrantzitsuak sortuz. Baina Indautxuk defentsa ona burutu zuen Bilboko Athletic taldeko Laka beg jokalaririk ohia bere hamakakoa izanik. Azken minutuetan Tolosak ez zuen presioa ondo burutu, eta balizko bi puntu galdu zituen. Etxeko hitzorduetan ez galtzea «garrantzi-



Berazubiri irabazi ezinik darrai Tolosak, zaletuen aurrean. IMANOL GARCIA

tsua» bada ere, irabaztea «ezinbestekoa» da taulan gora egiteko.

**Hurrengoan, Getxo aurkari**

Datorren jardunaldian Bizkaira bidaiatuko du taldeak. Getxoren aurka jokatu duen norgehiagokarako. Getxotarrak 19. postuan kokatzen dira sailkapenean, eta zortzi jar-

nalditan bost puntu soilik lortu dituzte. Aukera egokia dirudi, bada, urdinentzat, hirugarren garaipena eskuratzeko, Berazubitik urrun. Oraindik Ligak asko du emateko, baina taldeak horrela jarraituz gero, ez ditu arazoak izango mailari eusteko. Orain gorako postuekin amestea geratzen zaio, ildo honetatik ilusioz ikusten baitute aukera hori.

### MENDI-ALDE

Eguneroko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak,...

**Jatetxea**

San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

ARETO FUTBOLA ▶

# Laskorainek Beti Arin taldeari irabazi dio nagusitasun handiz

3 eta 8 hartu zuten mendean tolosarrek Zornotzako taldea; horitxoek ez zuten arazo larririk izan hiru puntuak lortzeko

**IRATXE ETXEBESTE**

Egun bi taldeen artean dagoen kalitate ezberdintasuna agerian ipiniaz, eta «aurrez uste baino samurrago», 3 eta 8 gaudituz zuten Laskorain areto futbol taldeak Beti Arin talde zornotzarra, larunbatean. Horitxoek ez zuten arazo larriegirik izan jokoan ziren hiru puntu garrantzitsuak Usabaleko zaku operara ekartzeko.

Epaileek hasiera adierazi eta berehala ipini zen neurketa maldan behera. «Estreinako minutuan Yustos Copperfield-ek gol bihurtu zuten presioaren ondorioz berreskuraturatuko baloi bat, eta jokaldi horrekintze soilik Larrea polikiroldegi olinpikora hurbildutako orok puntuak tolosarrek izango zirela ulertu zuten», adierazi dute Laskorain areto futbol taldeko arduradunek.

Eta horrelaxe suertatu zen. Beti Arin-eko beteranoak, garai bateko arintasuna galduta edo erdoilduta, ez ziren gai izan Ikastolakoen joko futbolistikoki oztopatzeko, eta minutuak aurrera joan ahala horitxoek alde handiago bilakatu zuten. Iaz gertatu zen bezalaxe, ipini zuten oztopo bakarra joko gogorrarena izan zen. «Epaileek mozten asmatu ez zuten eta araudiaz kanpo kokatutako joko gogorrarena», alegia. Nolahala, ez zuten Laskoraineko en festa ekidin eta, aurreratu bezala, golak bata bestearen atzetik etorri ziren, «grabitate futbolistikoaren eskutik, hain zuten ere».

**Gol zaparrada Tolosatik**

«Yustosek beste bat (bere bigarrena) sartu zuten, Saldias kapitain handiak bi sinatu zituen, eta Barriola injenieriak, Gil TDlak, Telletxea kadeteak eta Calixtok bana. Gol pozgarriena, ezbaiz gabe, urtebete jokatuta gabe egondako Calixena izan zen, bere bikotearen gidaritzapean Laskorainera style berri bat ekarri duen Calixena, ikusi bestela bere ile mozketa. Manhattan aldetik datozen estetika eta moda gomendioak kontuan hartuta,



Laskorain areto futbol taldea, arbiboko argazki batean. HITZA

mutil hau ez da metrosexuala bakarrik, *gay-vague* edo ia *gay* bat ere bada», adierazi dute Laskorain taldeko ordezkariak, jokatutako partidua kronika egiterakoan usadio duten bezala, barre artean.

Kontuak kontu, hiru jardunaldietan pilotatutako zazpi puntuak ematen duten berotasunarekin, Laskorainek bi jardunaldi «oso gogor» izango ditu datozen bi asteburuetan, Nogales eta Piti Pascual taldeen kontra jokatuko baitu. Hala ere, Tolosako areto futbol taldearen benetako lehiakortasuna neurtzeko parada ezin hobea izango da datozen asteburuetan.

Javi delegatua, Egizabal entrenatzailea eta Domentxe, Yustos, Telletxea, Saldias, Barriola —hasierako bostekoa—, Alon-

so, Gil, Amatriain, Calixto, Murgi eta Urko jokalariek izan ziren larunbatean Zornotzako (Bizkaia) Beti Arin kiroledegian Laskorain taldearen alde lantzen ari zirenak.

Bestalde, Laskorain areto futbol taldeko behe mailatako taldeek borobildu egin dute aste honetan talde nagusiaren jarduna. «Jorge Alonso Mourinho-ren taldeak 4 eta 1 irabazi zuten oso erraz Denak Pizza taldearen aurkako derbia, eta Muruaren taldeak, berriz, 3 eta 1 irabazi zuten zegokion neurketa». Jardunaldi horretan Laskorain izenean aritu diren hiru taldeek lortutako emaitzak paregabeak izan dira, beraz. Hiru taldeen artean jokoan ziren bederatzita puntuetatik bederatzia eskuratu dituzte Tolosakoek. Hobeto ezin.

SASKIBALOI ▶

## Tolosa Aralar taldeak ozta-ozta garaitu du aurkaria

Asti Leku Tsunami ez zuen lortu etxean Tolosako taldeari irabazterik (56-58)

**I. ETXEBESTE**

TAKE, Tolosako senior mailako saskibaloitza emaitza ona lortu du aste honetan, eta, ondorioz, aurrera egiten ari da sailkanera orokorrean. Izan ere, Tolosa Aralar taldeak ozta-ozta, baina irabazi egin dio etxetik kanpo Asti Leku Tsunami taldeari. Bi puntuak aldearekin, 56 eta 58ko emaitzarekin amaitu zen azkenean bi taldeen arteko norgehiagoka.

Garaipen batek ematen duen lasaitasun apurrarekin, etxean, Usabalen jokatutako du hurrengo neurketa senior mailako Tolosa Aralar taldeak. 18:00etatik aurrera, Leioak Zarautz KE taldea izango du aurrez aurre, larunbatean.

Bestalde, kadete mailako Tolosa Argysan taldekoek ez dute neurketarik jokatutako aste honetan, talde aurkariak lehiaketa utzi berri duelako. Kadete mailakoek ere larunbatean izango dute, beraz, hurrengo hitzordua. Ez dira, ordea, etxean ariko, eta Legazpiara joan beharko dute hango Andraitz taldearen aurka aritzeko. 16:00etan hasiko da bi taldeen arteko norgehiagoka.

ZESTA-PUNTA ▶

## la neurketa guztiak irabazita aste honetan

Kadete eta nagusien mailakoek jardun dute Tolosan eta Donostian Beotibar defenditzen


**I. ETXEBESTE**

Zesta-Puntako Elkarteen Arteko Txapelketan aste honetako ia partidu guztiak irabazi dituzte Beotibar taldekoek. Kadete eta nagusien mailako jokalariek izan dira Kutxa Saria ere deitzen dioten txapelketan lehian, eta Tolosan eta Donostian izan dituzte norgehiagokak.

Nagusietan, Tolosako Santa Luzia pilotalekuan jardun zuten ostiralean Artetxek eta Garmendiak Beotibar 2 taldearen izenean, eta 31-35 galdutuzten Zumaia 6ren aurka. Bigarren partiduan, Orrantziak eta Mujikak osatutako Beotibar 3 taldeak 35-17 hartu zuten mendean Gazteleku 4, eta Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan larunbatean Zumaia 4 eta Beotibar 1 taldeen aurkako neurketa 24-35eko emaitzarekin bukatu zen. Trabanzosek eta Rezolak defenditu zuten Tolosako taldea.

Kadeteen mailakoek Tolosako Beotibar pilotalekuan jardun zuten ostiralean: Mujikak eta Telleriak Beotibar 1 taldea osatu zuten, eta 30-20 irabazi Zumaia. Bigarren partiduan aritu ziren Beotibar 2koak Donostia Jaialai 2 taldearen aurka, eta 30-29 hartu zituzten mendean Izagirrek eta Bildaratzek aurkariak.

**iragarki laburrak ▶**



**Aduna.** 608 m2-ko pabilioia alokatzen da. Garabi zubirekin eta bulegoak jarrita.

**Albiztur.** Eraberritzeko dagoen baserria salgai. 200m2-ko solairua,

hiru solairu, 35.000 m2-ko lursailarekin.

**Anoeta.** Estreinatzeko dagoen duplex etxebizitza salgai. Lau logela, 2 bainugela, egongela, sukalde eta terrazarekin. Garajea aukeran.

**Asteasu.** 1.050 m2-ko bi solairuko eta 250 m2-ko solairu artean duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresna eta hobekuntzekin hornitua.

**Beasain.** 45 m2 erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.

**Berrobi.** 50 m2-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

**Berastegi.** 100 m2-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharrekoa, 75.000 m2-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.

**Bidania.** Azken bi etxe atxiki saltzen dira. 160 m2 eraikita.

**Donostia.** Saguesen, 70 m2-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

**Legorreta.** 3 hektareatako lursaila salgai. Sarbide ona.

**Lizartza.** Eraikuntza berrikoak, 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.

**Segura.** Eraikitzen ari diren 14 etxe atxiki, 297.500 eurotik hasita.

**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskina egiten, 100 m2-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta

eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia du.

**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m2-koa. Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel kalean, azken apartamentua. Eraikuntza berrikoa. 65 m2 erabilgarri ditu.

**Tolosa.** Apataerrek, duplex-a. Berritua. Garajearekin eta lursailarekin.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko bi etxebizitza salgai. Aukera ematen du hiru edo lau logela izateko.

**Tolosa.** Etxebizitzak ditugu alokairuan. Informazio pertsonala jasoko duzu Basabiren bulegora [agertuz gero](#).

ZIZURKIL ▶ EKONOMIA

# VIII. Azoka Bereziak janari eta artisau postuz beteko du Zizurkil Goia igandean

Berrogei postu inguru izango dira egun guztian, tartean Zizurkilekoak eta eskualdekoak; EBEL elkarteak emakume baserritarren lana aldarrikatuko du

IMANOL GARCIA

VIII. Azoka Bereziaren aurkezpena egin zuten atzo Zizurkilgo udaletxean. Bertan ziren Marian Lazkano alkatea, Idoia Lazkano zinegotzia eta Baserriaren Batzordeko burua eta Maider Aramendi EBEL elkarteak koordinatzailea. Igande honetan, hilak 23, egingo da azoka Zizurkil Goian. «Azokak bi esparru nagusi izaten ditu: janari postuak eta artisau postuak, eta bakoitzetik 20 bat izango dira», azaldu zuen herriko alkateak.

Azokaren aurkezpenarekin batera Udalak deialdi bat luzatu zuen bai zizurkildarrei bai azokara joango den edozein bisitariri: «Bertan egin ditzate la asteko erosketak, azken finean hori baita azokaren helburua». Azokan parte hartzeko artisau erara ekoiztutako produktuak eraman behar dira. Zizurkileko hainbat baserri bereen produktuak jarriko dituzte salmentan: Menditarte, Olatza baserria, Iruña baserria, Loidi baserria, Artutxaena eta Lurlan. Eskualdekoak ere izango dira: Asteasutik Ugarte baserria, Aldabatik Aldaba Zahar Elkarte eta Leaburutik Mahala enpresa, hain zuzen ere. Udalak, ohi denez, Baserriko Argia saria emango dio Zizurkilgo postu onenari.

## Baserriko argia

Emakume Baserritarren Elkar-teak (EBEL) azoka baliatuko du emakume baserritarren lanak behar bezalako errekonozimendua izan dezan aldarrikatzeko. EBELek Baserriko Argia



Ezker-eskuin: Idoia Lazkano, Marian Lazkano eta Maider Aramendi, atzoko prentsaurrekoan. I. GARCIA

egitasmoa abiatu zuen 2000. urtean, gizartearen emakume baserritarren lana zabaldu eta behar bezalako errekonozimendua jasotzeko.

Hainbat fase izan ditu proiektuak. «Juan Gorriti eskultoreari eskatutako Baserriko Argia eskultura serien bitartez erakusketa batzuk antolatu genituen, eta horiek aitzakizat hartuta ekintza batzuk egin genituen. Etapa horren amaiera Zizurkilgo herrian eman genion 2002. urtean, Baserriko Argia eskultura nagusia bertan jarritz», azaldu zuen Maider Aramendik. Bigarren fase batean zenbait elkar-terekin egin zituzten harrema-

nak, eta hirugarrenea da «gizartearen hezitzen joatea, jabetzeko zein den baserriaren emakumearen lana», adierazi zuen Aramendik. Aurtengoan Baserriko Argia eskultura jarri zeneko III. urteurrena ospatuko dute, eta «gure helburua da emakume baserritarrek azoketan duten parte-hartzea edo lana azaltzea».

Ez da, ordea, azalpen hutsa izango, aldarrikapenerako tartea izango baita. «Azokak gaur egun gainbehera bat bizi dute, eta nolabaiteko folklore hutsean eroritako guneak direla iruditzen zaizkigu», zioen Aramendik. «Ez gaude baserriaren bezala azokaren kontra, gure lanaren zati garrantzitsu bat dirrelako, baina adierazi behar dugu azoka hauek duten garrantzia eta egiten den lanaren azalpen bat eman beharra dago». Azokak salmenta gune izatea nahi dute, eta ez «soilik kulturaren parte gisa. Elikadura eta kontsumo orekatu baten aldeko apustua da», gaineratu zuen EBELeko koordinatzaileak. Hau guztia azaldu eta gizarte-ratzeko, aldarrikapen postu bat jarriko dute igandeko azokan.

Bestalde, aipatu behar da

## EGITARUA ▶

**11:00-14:30 eta 16:00-19:30.** Baserriko produktuak eta artisauak. Autobusa doan Pasusenetik Zizurkil Goiko plazara egun guztian.  
**12:00.** Baserriko Argia eskulturaren hirugarren urtebetetze ekitaldia, EBELen eskutik.  
**13:00.** Baserriko Argia saria Zizurkilgo postu onenari.  
**14:00.** Txahal erre jatea Ziminteyuan. Txartelak salgai Zentroa, Iriarte eta Atxulondo tabernetan, 10 euroren truke.  
**19:00.** Trikitilari eta dantzari jaialdia.  
**19:30.** Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsoariak.

Baserriko Argia beka sortu duela Zizurkilgo Udalak, eta 2006an banatu nahi duela. «Emakume baserritarrek sus-tatutako proiektua bultzatzea izango du helburu beka», zioen Lazkano alkateak. Datorren urteko azokan beka jasotzen duena izatea espero du Udalak. Bekaren baldintzak ezar-tzeko, hain zuzen, EBEL elkarte-koen lankidetzak izango du.

ANOETA-IRURA ▶

## Autodefentsa ikastaroan izena emateko aukera

Autodefentsa ikastaroaren antolatzaileek izen-emate epea luzatzea erabaki dute. Orain hilaren 26a arte dute aukera ikastaroan parte har-tu nahi dutenek. Horretarako, Anoetako edo Irurako udale-txera jo behar dute. Besteak beste, ikastaroan gorputza-ren ezaguera, bere posibilita-teak eta puntu ahulak eza-gutuko dira, eta baita eraso bati aurre egiteko teknikak ere.

GIZARTEA ▶

## Arantzazura joateko autobusa antolatu dute

Igande honetarako, hilaren 23a, autobusa antolatu da Arantzazura joateko. Astea-sutik 09:00etan aterako da eta, ondoren, Villabonan, Iru-ran, Anoetan eta Tolosan egingo ditu geldialdiak Aran-tzazura abiatu aurretik. 19:00ak aldera itzultzeko as-moa dute. Izena emateko 943 65 27 00 telefonora deitu be-har da.

VILLABONA ▶

## Behar Zana Endika Abril-eko finalean

Pasa den igandean Villabo-nako Errebote Plazan jokatu-tako partidaren Behar-Zanako jokalariek 13 eta 7 irabazi zuten Uztaritzeko Kapito Har-ri taldearen aurka eta, hone-la, Endika Abril Txapelketa-ren finala jokatu dute. Hi-tzordua datorren igandean, hilaren 23an, izango da. Oiar-tzungo Errebote Plaza ber-rian, Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte taldearen aur-ka. Behar-Zanako taldekide-ak hauek izan ziren: Igor Ale-jo, Jon Alejo, Xabier Ayerza, Eneko Gorostidi eta Sergio Sanchez.

VILLABONA ▶

## Obrak direla-eta Udal Liburutegia itxiko dute

Eraikuntza lanak direla eta, Villabonako Udal Liburutegia itxita egongo da bihar hasi eta hurrengo osteguna arte, hilak 27.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zerbitzaria.** Raku tabernak zerbitzaria behar du. 618 38 83 20.

### Muntatzaileak.

Leitzako enpresa batek pladur muntatzaileak, edo ofizioa ikasteko gogoia duten langileak behar ditu. Lana Leiza eta inguruan. 699 65 95 26.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** Hasi berri da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Gure eskualdetik, Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi eta Jexux Mari Irazu ari dira txapela lortzeko lehian. Nor iritsiko da urrutien? Bozka ezazu gure webgunean!

ZALDI LASTERKETAK ▶

# Izagirre, sailkapeneko lehen postuan

Axier Mujika eta Garikoitz Lasa bigarren eta hirugarren postuan dira

M. SAN SEBASTIAN

Antza, zaldi lasterketen denboraldiak ez du amaierara iritsi nahi. Urtarrilaz geroztik lasterketetan aritu ostean, oraindik ere proba bat falta da denboraldia amaitzeko. Antolatzaileen hitzetan, «azken proba bat geratzen da sailkapen orokorra ezagutzeko». Bederatzi proba jokatu diren honetan, eta azkenaren esperoan, oraingoz sailkapen orokorreko lehen hiru postuak eskualdean geratzen dira. Izan ere, lehenengo Iñaki Izagirre asteasuarra

dago, bigarren Axier Mujika zizurkildarra eta hirugarren Garikoitz Lasa bidaniarra.

Puntuaketarako balio zuen azken lasterketa Deban izan zen irailean. Sailkapeneko lehen postua, 26 punturekin, Izagirre asteasuarrak lortu zuen bere zaldi Fikusen gainean. Gertutik, Mujika du sailkapeneko. 24 puntu eskuratu ditu zizurkildarrak Lur zaldiaren gainean egindako denboraldi on honetan. Lehen postuaren lehiatik urrunago Garikoitz Lasa eta Orkatz bere zaldia daude, 15 punturekin.

Azken txanpa honetan, beraz, lehen postua eskuratzeko lehia ia parekatuak dauden lehen bi zaldunen artean dago. Ondorengo postuetan ere denboraldi ona egin duten zaldunak ditugu; hala nola, Josu Lizaso, P. Antonio Virgala, P. Joxe Saizar, Aitor Odriozola, Igor Castañares edo Millan Telleria albizuarra, 7 punturekin zazpigarren postuan dagoena.

**Azkenaren zain**

Bederatzi lasterketa jokatu dira urtarrilaz geroztik Gipuz-



Denboraldian zehar Bidegoianen egindako lasterketa. O. ESKITXABEL

koa osoan. Azkena falta da puntuazio orokorra ezagutzeko. Antolatzaileek diotenez, «oraindik ez dakigu non izango den azken lasterketa hori,

baina ziurrenik hil honen amaieran izango dela badakigu». Oraindik pixka bat itxaron beharko dugu, beraz, irabazlearen izena ezagutzeko.

ALEGIA ▶ KULTUR ASTEA

# Lehendabiziko aldiz Kultur Astea egingo dute herrian

Ekitaldiek astebete iraungo dute; hilaren 22an hasi eta 28ra bitarte

MARTA SAN SEBASTIAN

Alegiako Kultur Batzordeak antolatuta, lehenengo aldiz Kultur Astea egingo dute herrian. Askotariko ekitaldiak prestatu dituzte Alegia astebetez kulturaren munduan murgiltzeko asmotan. Lehenengo aldia izaki, «proba moduan» hartu nahi dute, hurrengo urte-erdi begira aldaketak egiteko.

I. Kultur Asteko lehen eguna larunbatean, hilak 22, izango da. 09:00etatik 14:00ak bitarte, gazteentzat talogintza tailerra antolatu dute. 12 urtetatik hasi eta 16 urte dituzten gazteei zuzendurik dago tailer hau, eta doan izango da. Herriko frontoian egingo da ikastaroa, eta material guztia bertan izango

da. Kultur Etxetik ohartzazari dutenez, «bihar arte luzatu dute Kultur Etxean izena emateko azken eguna». Topagunak, Euskara Elkartearen Federazioak, emango du ikastaro hauxe.

Igandean, aldiz, Txintxarri Eguna izango da, Kultur Astearen barnean. Meza Nagusian Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek kontzertua eskainiko dute koruan kantari ibilitako hildakoen alde.

Asteburua amaiturik, astea indartsu hasiko dute Alegian. Izan ere, azken egunotan aipatutako Argazki Lehiaketaren sari banaketa egingo dute udaletxean, 19:30ean. Bide batez, Kultur Batzordeak deialdia egin du «lehiaketarako argaz-

kiak gaur bidaltzeko, azken eguna baita». Era berean, argazki horien erakusketaren hasiera ere izango da egun horretan, eta azaroren 1a bitarte luzatuko da. Udaletxera gerturatzeara nahikoa izango du argazki sarituak ikusi nahi dituenak.

Hilaren 26a haurrei zuzendutako eguna izango da. Izan ere, 18:15ean Udal Liburutegiaren ipuin kontaketa egingo da txikienentzat. Bost urtetatik hasi eta zortzi urtera bitarteko haurrei gomendatutako saioa izango da, eta Egoitz Lasa izango da ipuin-kontalaria.

Ostegunean, aldiz, ipuin kontaketa alde batera utzi eta antzerkiari irekiko diote tartea. Aparteko eguna izaki, Kultur

Etxeko batzar aretoko atea gaur zabalduko dira antzerki saiorako. *Nora hoa neska?* antzerki saioaz gozatzeko parada izango dute herritarrek. Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz izango dira antzezleak.

Alegiako I. Kultur Astea hilaren 28an amaituko da, Bertso Eskola irekiarekin. Kultur Etxeko batzar aretoan Aitor Mendiluze bertsolaria izango da *Bertsolaria bakarkako lanaren aurrian* izeneko eskolako emateko asmoz. 19:30ean izango da saio hori ostiralean, eta Alegian martxan jartzen ari den Bertso Eskolaren atariko ari izango da.

ALEGIA ▶

## 'La vida soñada de los angeles' gaur Gaztetxean

Ia asteazkeneko bezala, gaur ere Alegiako Gaztetxean zinerako gaua izango da. Hain zuzen ere, *La vida soñada de los angeles* filma proiektatuko dute, Erick Zonca zuzendariarena. Zinezaleentzat hitzordu hau, beti bezala, 21:30ean izango da.

ALEGIA ▶

## Ostiralean odola emateko deialdia luzatu dute

Alegiako herritarrei deialdia luzatu diete Odol Emaleen elkartetik ostiralean Medikuen Etxera gerturatzeko odola ematera. 19:00ean hasi eta 21:00ak bitarte izango da aukera hori. Honez gain, aurretiaz odola eman dutenei zein lehen aldiz egingo dutenei zuzendua dagoela deialdia argitu dute.

# hitza txokoa lagunen

HITZAren harpidedunen artean zozketatutako **ELOLA ALTZARIAK**eko Tempur markako bi buruko zerbikalen irabazlea.

**AMAIA ASKASIBAR AGIRRE (TOLOSA)**



Lizardi poeta, 2 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 29 01

BERROBI ▶ HERRI KIROLAK

# Estreinako apustuarekin gustura daude bi aizkolariak

Belauntzarra izan zen lehena sei kanaerdikoak ebakitzen 23:17 denborarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Larunbat gauean herri kirolen hitzordu politaz gozatzeko aukera izan zen Berrobin; izan ere, Iban Ugartemendia belauntzarraren eta Mikel Belauntzararen berrobitarraren arteko aizkora apustua izan zen ikusgai.

6 kanaerdiko ebakitzen lehena belauntzarra izan zen, 23 minutu eta 17 segundoko denborarekin; berrobitarrak, berriaz, 25 minutu eta 37 segundo behar izan zituen lana amaitze-

ko. Duela 3 hilabete inguru adostu zuten, parrandan ari zirela, apustua egitearena; baina ez zuten inola ere uste hain urrutira helduko zenik, oihartzun handia izan baitu, eta jendetza hurbildu baitzen Berrobiko Urreburu pilotalekuan, 400 lagun inguru.

Bi aizkolari gazteentzat estreinako apustu ofiziala izan da, eta oso gustura daude egindakoarekin; halaber, «kirol zail eta gogor» honetan lanean jarraitzeko prest daudela aitortu dute.



Pilotalekuan egurrak prestatzen apustuarekin hasi aurretik. HITZA



Jende ugari bildu zen Berrobiko Urreburu pilotalekuan. HITZA

IBAN UGARTEMENDIA ▶ AIZKOLARIA

«Asko dut oraindik ikasteko, hau niretzat oso berria baita»

Jendaurrean eginiko estreina-ko dema izan da 21 urteko belauntzarrarentzat.

**Zure estreinaldia izan da. Zer moduzko esperientzia?**

Oso urduri nengoen hasi aurretik, eta baita demaren lehen zatian ere, baina aurrera egin ahala lasaitzen joan nintzen, aurkariari tarrea atera bainon. Esperientzia polita izan da, besteak beste, irabaztea lortu nuelako.

**Denbora luzez aritu al zara prestatzen?**

Hiru hilabete inguru jardun dut aizkorarekin lanean laguntzailearekin. Gogorra izan den arren eta apustua bukatu bada ere, ez dut oraingo kirol hau albo batera uzteko asmorik.

**Mundu honetan jarraitzeko asmoa duzu, beraz.**

Bai, baina asko dut ikasteko, ni-



I. GARCIA

retzat hau berria baita. Aizkoran jarraitzeko gai naizen ikusi behar dut lehendabizi, eta hori entrenatzen jarraitzen ikusi ahal izango dut. Gainera, uste baino kirol zailagoa da, gogor egin behar baita lan eta teknikak ikasi behar baitira. Gas-  
tuak ere handiak dira. ◀

MIKEL BELAUNTZARAN ▶ AIZKOLARIA

«Aizkorarekin jarraitzeko gogotsu nago orain»

Hiruzpalau desafiotan parte hartu du 23 urteko berrobitarrak, baina larunbatekoa lehenengo apustu ofiziala izan da.

**Lehenengo larunbatekoa garrantzitsua izan da zuretzat.**

**Nola ikusi duzu zure burua?** Laugarren enborrerarte parean joan ginen biak, baina hor-  
tik aurrera asko zaildu zitzaidan lana, egur txarra egokitu baizitzaidan, eta Ibanek alde atera zidan.

**Apustu gehiagotan parte hartutakoa zara.**

Bai, duela bi urte izan nuen lehendabizikoa, baina denbora luzez aizkora utzi egin nuen. Orain berriro hasi naiz, eta larunbatekoa eta gero jarraitzeko gogo handiagoz nago.

**Txapelketetan parte hartzea al da zure helburua?**

Asko gustatuko litzaidake, bai-



I. GARCIA

na horretarako lan handia egin beharra dago. Apusturako aritu naizen bezala, aurrerantzean ere entrenatzen jarraituko dut, eta ikusiko dugu noraino heltzen garen. Kontuan hartu behar da baita ere aizkoran egiteak gastu handiak dituela. ◀

IBARRA ▶

**Berri Txarrak-en kontzertua Gaztetxean**

Berri Txarrak taldeak *Jaio. Musika. Hil* bere azken diskoa aurkeztuko du etzi, 23:30ean, Gaztetxean. Sarre-  
rak mugatuak dira, eta 5 euroren truke eskuratu ahal izango dira ohiko lekuetan.

IBARRA ▶

**Jaietako argazki erakusketa ikusgai gaurtik**

Ibarrako Udala Kultura eta Gazteria sailak aurtengo San Bartolome jaietako argazki-erakusketa antolatu du, Festa Batzordeko kideen lanari eta hainbat herritarrek entregatu dituzten argazkien esker. Argazki erakusketa gaur hasi eta azaroaren 4ra bitarte ikusi ahal izango da. Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



## LEITZA ▶

## Militarrak, armak eskuan, igaro dira herri erditik barrena

Kaxeta aldetik behera jaitsi dira; Bortziri eta Baztanen maniobrak egiten ari dira

J. A.

Atzo eguerdian, 12:30ak aldera. Kaxeta aldetik oinez, 40 bat militar sartu ziren herri-  
ra, «fusilak eskuan zituzte-  
la», lekukoek Htzari adierazi  
ziotenez, eta «Iruñea aldera  
jarraitu zuten».

Militarrak errepidearen alde batetik, ezkerretik, zihaztela ikusi zuten, banako iladan eta bi taldetan banatuta. Hori baino lehen bi kamioi militar ere jaitsi ziren 11:00ak aldera, gero berriz, goraldara itzultzeko. Ondoren igaro ziren oinezko indar armatuak.

Leitzako Udaleko ordezkariekin harremanetan jarrita, Htzari «horixe da dugun arrereno berria», adierazi zioten, nonbait Udalera ez da horrelako gertakizunen inolako baimen eskaerarik edota jakinarazpenik igorri: «Kominikabidetan bai entzun dugula goizean [atzokoan], Bera eta Lesaka aldean badabiltzala, baina Leitzari buruz ez dute deus ere esan», zioten.

Gauzak horrela, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritari gertaera honi buruz galdetzeko asmoa azaldu zuten.

Beste behin, badirudi Espainiako Indar Armatuak Euskal Herrian maniobra militarrik egiten ari direla: Bortziritan, Beran eta Lesakan, eta Baztanen, Arraiozen, ikusi dituzte bertakoek, oinez herriak zeharkatuz eta errepidetan, nola helikoptero militarrik ere. Leitzan ere bai.

## EUSKARA ▶

# Langile berriak Leitzaldeko euskalgintzan

Maider Goñi ariko da hurrengo urte eta erdian Euskara teknikari lanetan, Leitzan eta Areson



Maider Goñi etxarriarra da hurrengo urte eta erdian Leitzaldeko Euskara teknikari berria. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

**M**aider Goñi Errazkin da Leitzaldeko Euskara Mankomunitateko Euskara teknikari berria. Dabid Anauten eszedentzia-epetan ordezko lana egiten du, hurrengo urte eta erdian, Areson, Leitzan, Goizetan eta Aranon.

Etxarri Aranazkoa da Goñi. Ikasketaz Soziologoa. Erabat euskararen arloan lanean aritu dena: euskara irakasle modura, DBHn, Lehen Hezkuntzan eta, batez ere, Haur Hezkuntzan jardun du; azken bost urteotan, Sakanako Mankomunitatean egin du lan. «Duela bost urte *Euskara denon esku* programan hasi nintzen lanean, SIADECOREkin, elkarreetan euskara sustatzeko plan bate-

kin», zehaztu zion atzo bertan teknikariari Htzari, bera ezagutzera bertararuta: «Orditik euskara teknikari lanetan nabil, modu batera edo bestera», erantsiz. Berak aitatu zuenez, esate baterako, «*Bai Euskarari*ren egitasmo pilotua Sakanan egin zen, eta gure lan taldearen esku joan zen», baieztatu zuen. Geroztik hasi zen Sakanako Mankomunitatean Euskara teknikari lanetan: «Han hiru langile ginen, Sakana guztiok herriak eta Irurtzun ere bertako kide izanik, lana badago eta», argitu zuen. Beraz, ikusten denez eskarmentuko teknika da bera.

Gogotsu ekin dio lanari. Irailaren erdialdera hasi zen Leitzaldean lanean, eta honezkeror bertan lan egiteari koska ha-

rrapatzen hasia da. Berak nabarmendu zuenez, lan aldetik topatu duen alderik handiena «kontabilitatea eraman behar izatea» dela baieztatu zuen: «Teknikari lana egiteaz gain, aurrekontuen gestioa ere neronek egin behar dut, zer egiteko ahalmena dugun baloratzea. Baina ikasiko dugu». «Eta lau herrietarako bakarrik aritzea ere arraro egiten zait», adierazi zuen.

Orain, euskararen goerari dagokionez ere, oso baikor ageri da. «Hezkuntzan D eredu besterik ez dago hemen, eta hori sekulako aldea da, gure lanaren hartzailearen perfla asko berdintzen duela», ziurtatu zuen. «Baina, batez ere, haur eta gazte guztiak euskaldun direla ziurtatuta da-

goelako, gutxienez ezagutzari dagokionez; etorkizunean zer erabilpen egiten duten ikusteko dago, noski, baina okerrean, hutsetik hastea baino hobe izan da», adierazi zuen Goñi. Honen harira, berak azaldu duenez, «Sakanakoa izan eta bertan lan egin dudanez, harekin parekatuta, han oso errealitate desberdineko herriak daude, herri batzuk oso euskaldunak dira, baina ondoren ia guztiz erdaldunak direnak ere badaude; oso errealitate linguistiko desberdinekoak dira batzuk zein besteak, eta hala, baita hezkuntza ereduaren antolaketa ere». Eredu gisa, Irurtzuneko kasua aitatu zuen, non ikasleen erdiak A ereduak diren.

Dena den, Leitzaldea ere ezagutzen ari dela aitortu zuen eta, bitartean, aurtengo urterako aurreikusita zeuden egitasmoekin aurrera jarraituko omen du. Horrela, laster batean, *Bai Euskarari*-ko Jarraipen Batzordeak hala erabakita, «dendarientzat, espresetarako... BDP programa aurkeztekoak gara», jakinarazi zuen: «Euskarri informatikoa, tramite guztietarako ereduak biltzen dituen programa», argitu zuenez; bide beretik «ikaste-  
txeekin ere egitasmo bat badugu eskuartean», jarraitu zuen, oraindik osotara zehaztu gabe dagoen arren.

Argitalpenei ere «laster txoko berezi bat eta ikusgarri ederra» egiten omen diete, «ikusmina sortuko duena, ziur», adierazi zuen, bestalde, jakinmina sortuz. Eta beste hamaika egitasmo.

Gogora ekarri nahi izan zuen, gainera, beren lanaren zerbitzu izazera ere, «kanpainak egiteaz gain, herritarrentzat lan desberdinak egin ditzakegu, zerbitzua eskaintzen dugu: itzulpenak eginez, banako izan edo enpresarako izan; elkarre-  
entzat ordenatzak; euskararen inguruko legeen gaineko aholkularitza lana... Hauen moduko zerbitzua ere eskuragarri dugu, eta hauek erabiltzeko daude», egin zuen gonbidapena.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

ANTZERKIA

**Tolosa.** *El filin es asi* antzezlan, Tearito Teatrorren eskutik. Bihar, 22:30ean, San Esteban auzo elkartearen Kultur Astearen baitan.

DEIALDIAK

**Amezketak.** *Belardo belar metaren ibilerak.* Inaki Martiarena *Mattin* marrazkilaria eskutik, ipuin-marrazketa saioa. Bihar, balioanizidun gelan. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

**Tolosa.** III. Patata Tortila Lehiaketa. Bihar, 19:30ean, San Estebango auzo elkartearen Ondoren, luncha. Ttontrt auzokide kultur elkarteak antolatuta, Kultur Astearen baitan.

HITZALDIAK

**Tolosa.** *Gaur egungo zizak,* Aranzadi zientzia elkarteak Mikologia sailaren eskutik. 19:30ean, San Estebango elkartearen. Kultur Astearen baitan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

**Alegia.** Erick Zonca zuzendariaren *La vida soñada de los angeles* filma, zine-klubean. 21:30ean, Gaztetxean.

MUSIKA

**Tolosa.** Jone bakarlari anoetarren kantaldia. 22:00etan, San Esteban auzoko lokalean. Kultur Astearen baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Leitza, Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
Ibarra, Ugarte, Maria Teresa. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

**Txolarre irratiak (107.5 eta 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; Hitzaren errepasoa, oharrak...  
12:15ean, agenda; elkarrizketak, iritziak, albisteak...; 13:00etan, *Ezkutuko koloreak* irrati nobela;  
13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa,* errepikapena.  
22:00-23:00. *Elektro gaua.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Elkarkidetzak helburu

**TOLOSALDEA** ▶ Kutxak antolatutako Euskal Jolasen Topaketa burutu zuten DBH 4-ko 125 ikaslek atzo goizean Villabonako Olaederra kiroldegian

IMANOL GARCIA

Olaederra kiroldegian atzo goizean ezohiko mugimendua izan zuten. Kutxak antolatutako Euskal Jolasen Topaketak burutu zituzten DBH 4-ko ikasleek. Anoeta-ko Ikastolatik, Alegiako Aralar Institututik, Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolatik eta Ernio-bea Institututik joandako 125 gazte bildu ziren zortzi taldetan.

Ikastolen Elkarteak ikasiker taldeak sustatutako ekimen honek ez du lehiakortasuna helburu. Ikasleen artean lehiaren aritzea elkarkidetzak bul-tzatzeko asmoarekin egiten dute. Hori guztia euskal jolasak eta jokoak ezagutarazten dituzten bitartean.

Hainbat proba burutu behar izan zituzten gazteek. Lokotxak, makila bira, sokatira eta boloak egin behar izan zituzten. Bestalde, auzolanean harri-jasotzea —zehazki, enbor bat zen altzatzen zutena—, ingudea eta ergometro batean arranean egin behar izan zuten.

Horiek guztiak puntuagarriak ziren azken sailkapenerako, baina aurretik aipatu bezala, ez zuten garrantzirik nork lortzen zituen puntu gehienek, baizik eta puntu horiek lortzeko gazteen artean konpondu behar izatea.

**Giroa, nagusi**

Beraz, atzo benetan irabazi zuena giroa izan zen. Kanpoan zegoen eguraldi txarrarekin alderatuta, kiroldegi barruan algarak ederki entzuten ziren.

Batez ere, antolatzaileek pres-tutako tailerretan.

Horiertako batean artzain za-kur jolasa egin behar izan zu-ten. Txapelketetan bezala, ar-diak mugitu behar ziren zirkui-tu batetik. Kasu honetan ikasle batek egiten zuen artzainaren papera, eta ardiaren begiak es-talita zituen ikasle taldea. Hor zegoen kokxa: artzainak ibil-i-de jakin batetik eramane behar zituen ardiak, baina ezin zuen hitzik erabili, oihuak eta txis-tuak baizik. Orduan bai zela beharrezkoa elkarkidetzak par-te-hartzaileen artean!

Beste tailerra bertsolaritza-rena izan zen. Gazteei lau oin eman zizkieten (baserria, neu-rria, herria eta harria), eta hor-tik bertsoa osatu behar zuten. Talde bati ondokoa bururatu zitzaion:

*Kiroldegia degu  
Gaur guk baserria  
Ondo alaitu degu  
Villabona herria.  
Arrauna, soka, lokotx,  
Ingude ta harria  
Itxura onarekin  
Emanez neurria*

Horrela eman zuten goiza ikasleek. Irakasleek ere lagun-du zuten, bai probak burutzen, baita giroa sortzen ere.

Euskal Jolas Topaketa hauek izango dute jarraipena Tolo-saldean. Baina beste maila ba-tzuetan egingo dira: LH 3 eta LH 4-tik DBH 3-ra bitartean. Hurrengo hitzordua Ibarra-n izango dela adierazi dute anto-latzaileek, azaroaren erdi alde-ra. Bitartean, parte hartuko du-ten ikasleek trebatzeko aukera izango dute.



Ingudea izan zen ikasleek egin beharreko probetako bat. IRENE LARRAÑA

## OSTALARITZA GIDA 2006

Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
  - Erretegiak
  - Pintxo tabernak
  - Sagardotegiak
- bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabal

Iragarkiak kontratatzeko:  
943 304 333  
publi@iragarri.net



**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAren egoizetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!